

Mendi Film jaialdiko pelikularik ikusgai Igorren

Aprilaren 11n eta 12an, 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretuan, mendia gai hartuten daben metraje labur eta ertaineko zazpi film egongo dira ikusgai. Honeek dira filmok: *Body of a Line*, *Everest Invaders* eta *Udalatz, ura eta atxa* eguenean, eta *Oinez*, *The Silent Escape*, *La Gara* eta *Rope* barikuan.

Mendi Amesgarriak titulupean, urtero dakarz Ganzabal Mendi Taldeak Igorreko Lasarte Aretora, Mendi Film jaialdiko pelikularik onenak. **15. orrialdea**



"Esna dadila piztia... Biba Korrika, harro herria!"

Garazi Arrulak Baionan esandako berbak dira: "Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako izanen da eta guk badakigu sua egiten".

Martian 22an pasau zan Korrika gure eskualdetik. Egunez eta eguraldiak lagunduta, sasoiaren egon ala ez, edade guztietako jentea batu zan euskerearen aldeko lasterketera, harro, euskerearen sua biztuteko, piztia esnatzeko bildur barik. Arratia eta Zeberion ia 60 kilometro egin ebazan, eta eskualdeko alkarte, erakunde eta eragileek eroan eben lekukoa egokitu jakien kilometroan. Zertu Kultur Elkartearena, 2.122 kilometroa izan zan. Asier Armendariz Dimakoari egokitu jakon eta Maddi umeak eroan eban. **10., 11., 12. eta 13. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bankuen digitalizazioa berbagai Martinez eta Mesa irakasleakaz

Saretzen tokiko hedabide eta Eitb-ren proiektuak, bankuak hartu ditu aztergai oingoan. Banku-bulegoen sarea txikitu egin da, eta gero eta gehiago pagetan da txartelagaz eta izapideak formatu digitalean egiten dira. Ander Zarragak Martinez eta Mesa alkarrizketatu ditu ondorioak jakiteko. **8. orrialdea**



DIMA

Axlarren topautako haginek 100.000 urte ditue

Dimako Axlor kobako indusketetan oin dala 20 urte inguru topautako hiru haginek analisia publikatu eban zezeilean Journal of Human Evolution aldizkariak. Haginok, oin dala 100.000 urte bizi izandako 10 eta 12 urte bitarteko ume bi eta heldu gazte batenak dira. **7. orrialdea**

EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA

NERABEZAROKO ERRONKAK GAINDITZEKO LAGUNTZEA

LAGUNTZEA NOZ ESKATU:

- EMOZINOAK KUDEATZEKO ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
- PRESINO AKADEMIKOA
- LAGUNAKAZ ARAZOAK
- FAMILIA ARAZOAK
- JARRERA EDO JOKABIDE ARRISKUTSUAK

Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean

Lehendakari Agirre 4, Igorre - 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com [ekineanpsikologiazentrua](https://www.instagram.com/ekineanpsikologiazentrua)

UBIDE

Kastillo parke eolikoa izango dan parajeetatik ibilaldia

Aire Hemendik! Ubideko Herri Plataformeak, Plauri Energy S.L.U. enpresek parke eolikoa egin gura dauan Ubideko parajeak erakusteko, parajeetatik ibilbidea antolatu eban martiaren 24an. 121 metroko bost aerogeneradore eta torre bat dagoz aurreikusita eta horreen montajeak eta jarduerak kalteak ekarriko leukez, paisajea, biodibersidadean eta ondare kulturean. Ubide eta parke eolikoak proiektuak dagozan beste herrietatik etorritako 60 bat lagun batu ziran, energia bariztagarriak bai, baina beste modu batera aldarrikatzeko. **9. orrialdea**

Literatura txokoa

DESPUÉS DEL IMPERIO. ENSAYO SOBRE LA DESCOMPOSICIÓN DEL SISTEMA NORTEAMERICANO (II)

Soviatar Batasunaren sistemearen suntsipena (*La chute finale*) iragarri eban egile honek 1976an erabilitako oinarri soziologikoak (goraka doan ume hilkortasuna, buru-hilketa eta erahilketak), eta beste batzuk erabili ditu AEBei agiri jakozan ezaugarriak: balantza komertzial sano defizitarioa (estatubatuarrek konsumidutako gehien-gehienak kanpoan produziduak dira); ekonomiaren finantziazioa (munduko diruak dolarraren aterpean sartu, ezegonkortasunaren ondorioz) ingeniari eskasia (Errusiak baino %33 gitxiago, honen hiru halako biztanleria izanda) eta goi mailako ikasketak zuzenbide, finantza edo antzeko lanbidee-

tara zuzenduak (askoz hobeto ordainduak); gizarte arrakala ekonomikoa (%20ek aberastasunaren %50aren jaube, demokrazia oligarkikoranzko bidean?); "mikromilitarismoa" Toddek deritxan militar ahulezia, aire-itsasoan indartsua bada be, infanterian molokot egin dau eraso dauan guztietan (II. Mundu Gerra ezker ez deuto beste potentzia bateri aurrez aurre kontra egin, beti herrialde makaleri eraso, bere potentzialtasuna antzektuz: Korea, Vietnam, Irak, Afganistan, Siria... edo "proxi" deitutako gerla mota, Ukrainan, kasurako). Arestiko guztiak, 2050a ipinten deuto data, ezintasun adierazgarriok aintzat hartuta, iparramerikar

inperioa porrotera daroa.

Gaur, 2024tik begiratura, munduko (Ukrainan eta Ekialde Hurbilean, gehienbat) gertaera larrienak begi aurrean doguzala, saiakera hau arean zaharkituta lotzean jaku, argitaratu zan ezkerro, Txinak hartu dauan lehena ez bada planetako bigarren indar ekonomikoa ikusita, liburuan bertan herrialde horren aitamen urria dakar eta ("gorakaria" deritxa). Halan eta guztiz be, AEBetan fokuratuz eta gainerako herrialdeen azterketa mamitsu, sakona, argigarria eta aberatsa zentzu askotan, egile hau gitxietsia Estatu frantsesean erabili dituan ostantzeko gai batzuetan, beti be sistema familiarra eta beronek



Emmanuel Todd

Después del imperio

Ediciones Akal, S.A. argitaletxea, 2002

192 orrialde

herrialdeetako sistema politikoan euki dauan eragin arteza ardatz nagusia tresna kontutan harturik.

Ahozpezu Bell Anperio

TELEFONO INTERESGARRIAK	Larrialdia Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112 Guardiako farmaziak 09:00etatik 22:00etara Aprilaren 1etik 7ra Goikoetxea. Dima. Ugarana 33 Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057 22:00etatik 09:00etara Gutierrez. Amorebieta-Etxano. Aprilaren 8tik 14ra Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820 22:00etatik 09:00etara Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. Aprilaren 15etik 21era Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27 Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154 22:00etatik 09:00etara Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten. Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.	Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 45 03 61 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 01 85	Bizkaibus 94 612 55 55 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era. Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdior: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatueta: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.	Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro. 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Ubide. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin. * 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira. Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro. 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik) Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik. Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.	Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40. Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00. Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40. Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean. Ugaotik Igorra. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean. Zeberiotik Arriorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10. Arriorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
	Medikuak Arantzazu: 94 600 74 63 Artea: 94 673 92 11 Arantzazu: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13 Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63	Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79	3911 linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro. Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatueta: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro. 3912 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatueta: 06:20tik 21:20era orduro.	3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik) Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik. Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.	La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatueta: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean. Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatueta: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.
	Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkarte. Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: begitu@begitu.eus . Webgunea: www.begitu.eus . Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus . Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus . Erredakzinoa: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus . Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa inprimatzeko zentroa. Facebook: Begitu Aldizkaria. Twitter: @BegituEus Instagram: @begitu.eus	Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartera 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com Areatzako Parketxea 94 673 92 79 IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus Areatzako Notarriotza 94 673 92 26 Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errota.eus Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eus			

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkarte. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile- eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatutako lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, errepuzidatu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:

begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA

Arratiako gazteok arriskuan gagoz



ARRATIAKO ERNAI

Gaur egun, gazteok egoera prekario orokortu baten bizi gara eta gure bizitzak duintasunez garatzea ezinezkoa da testuinguru honetan. Krisi egoera baten erdigunean kokatuten gara, sistema neoliberal honek, bere burua poderean eusteko beharrezkoa dauan krisi batean; hau da, bizitza eta kapitalaren arteko gerra bat suposatzen dauan krisia. Krisi orokortu honetan, kapitalaren etekin metaketari eusteko gizarte sektore gero eta prekarizatuagoak dagoz eta gazteok hau modu oindino nabarmenago baten bizi dogu. Gazteok sistema kapitalista zis-heteropatriarkala erreproduzidutako lan-esku merkeena eta subjektu zaurgarriena gara, gure bizitzak arrisku egoera batera kondenaiz.

Egoera honeri erantzuteko ipini dogu martxan dinamika barri hau: Bizitza duinak gazteontzat. Gazteok burrukarako eta eraldaketarako agente gara, eta egoera honeri bueltea emoteko beharrezkoak diran eremuez hausnartu, eta honeri aurre egiteko alternatibak eta proposamenak aurkeztu doguz Gazteontzat txostenean. Etxebizitza, zaintza, enplegua, osasun mentala, krisi ekosoziala, eskubide zibil eta politikoak, hezkuntza eta bizi ereduak daukaguz burrukatu beharreko eremutzat. Burruka eremu honeek ez dira eremu isolatuak. Alkar elikatuten dira eta batak bestean eragina daukie, horregaitik burruka estruktural legez identifiketan doguz. Gazteon prekarizazioa erro estrukturala da, eta horregaitik, honeri aurre egiteko burruka eta alternatibak estrukturalak izan behar dira.

Arratiako Errikoak dinamika honeri eskualde mailako ikuspuntu bat emoten egon gara azken

hileotan. Eskualdean enpleguen eta lanaren problematikan ipiniko dogu fokua eta hau izango da burruka eremu nagusia. Halanda be, badakigu problematika hau ez dala problematika isolatu bat eta gure bizitzetako beste eremu batzuetan zuzenean eragiten dauala. Gure helburua gazteok beteten doguzan lanpostuen inguruko hausnarketea zabalduzea da, eta Arratiako gazteria kapa zabal batez, gazteok langile moduan daukaguzan eskubideak aldarrikatu.

Arratiako gazteok bizitza duinak gura eta merezidu doguz, eta honeek lortu arte burrukan jarraituko dogu.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLIV). Kale berbakunea sustatu guran

ASTE SANTUKO OPORRAK

-Hi!! zer **jak** ba!!

-Hemen **gabizek** burua apurtu beharrean!!

-Zer dala-ta ba?

-Aste Satua dala-ta ez dala... ba **etxuk** ezer be hartu eta oin edozer gauza topetan!!

-Ai, ai, ai!! Hik **eztakik** Esopon fabulea? Inurria eta txixarrearena? Gauzak atzenengo momenturako itxia ez **dok** bape ona. Ia hurrengorako ikasten **bok**!!

-Bai!! Ia hurrengorako ikasten **bajoat**.



LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Ez da existitzen

Ez da existitzen euskeraz egiteko edo ez egiteko eskubidea. Baietz esan deuskue, holan saldu deuskue urteokaz, baina udaltzainen pistolek ez dabe zertan jakin euskerarik, zeladoreak ez deustu zertan zabaldu atea, pedia-treak ez deustu zertan osatu daukazun gaixotasun hori: zuk pentsetan dozu zure herrian zagozala, eta euskeraz egiteko eskubidea daukazula, baina zu ez zagoz gutiz ondo, ze zu errentadorea zara hemen, eta itxiko deusue esaten harro, herri, euskeraz eta kitu, ika-ika, baina estutuz eta estutuz joango jatzuz, eta azkenerako zeuretzat be alibioa izango da halako batean españolera pasetea.

Konturatu ez bazara be oindino, eskubide hori ez dago. Telebisinoa isiotu eta Xabier Amuriza entzutea Ibon Izaren ahotik, edo Axlorreko haginek, sagu zaharrek eroanak euskaldunen ahoetatik, ez dira existitzen ho-

rreek gauzok, Arratia bera be joan zan, itzulpenakaz gabiz danok: "andran afarie", "Dimeko jaiak", eta ez "andreen afaria" edo "Dimako jaiak", gure hizkuntza estandarrean gauzak esateko lotseagaz, gu geu be honezkero onartuaz-onartuaz goaz Bantustan bat garela Hego Arratia honetan.

Igual ez zara konziente, baina erdaldun bat nahikoa da zure gainerik paretako. Zure gainerik, eta beste hogeitarratienoren gainerik. Zergaitik? Ez dalako existitzen eskubide hori, menperatutako herrian menperatuen hizkuntzan egitearena. Hurrengo batean zurito bat eta pintxo bat eskatu behar badozuz leku itxura baten progratean edo inprimaki bat gobernu zibilean, gogoratu: ez da existitzen eskubide hori, euskeraz atendidua izatearena.

Bakarrik-bakarrik existitzen da zuk zure buruari daukatsazun maitasuna.

Bakarrik zagoz munduan. Zu eta beste 800.000 buruhandi. Rafahko pasabidean jente gehiago dago, eta ez da oindino belaunikatu. Eta zuk belauniko eskatu behar dozu existitzen ez dan eskubide bat? Existitzen ez dan eskubide bat eskatu behar dozu, benetan? Edo umoretsu eta alaitasunez esan behar deutsezu: euskalduna naz eta egun osoa daukat zuri joditako.

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Dena dago ilun itzalek azala harrotzen dute gaueko isiltasunean beldurraren amas-hotsak sumatzen dira ahul, izukor eta urrunean ez tandem oihartzuna hiriko hondarrak argitzen.

Sukaldeetako epela egongeletako argazkiak sehasketako belusezko panpinak oheko maindireen gozotasuna dena da oroitzen hutsa.

Errezel zuri batek ezaltzen du goizaldeko beltza bizitza ikusezina bihurtu da fosforoaren erre kiratsak hartu ditu kaleak azalak garrasika oinazea heriotzaren hautsean dariola ametsak noraezean negar malakoetan isurita izatea antzututa.

Amesgaiztoa diruri, baia errealtate gordina da egia ukatua duen herria bihotz ustelen gorrotoaz suntsituta

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerok, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Bitartean Palestinan

munduko erraldioen gerizpean hilketa demokrasiaren zurikeriaz bedeinkatuta gupida izpi txikiena ere debekatuta itzaropen guztia lapurtuta.

Gurean ere jasan dugu okupazioaren bortizkeria jauntxo diruzaleen handikeria zikina boterearen lorde likatsua, hala ere, nik bizitza bizi dut erruz eta bitartean Palestinan ume haiek, familia haiek...

BEGI TXINDORRA

Egunerokotasunean, askotan begiratuten dogu atzera: lanean, artxiboko argazki bat berreskuratzean, etxean kajoi bat ordenatzean sasoi baten balio handia izan eben gauzak topautakoan, edo kalean, aspaldiko lagun bategaz topo egindakoan.

Eta atzera begiratzeak, min egiten deusku, ederrena be zimeldu egin dala ikustean.

Pasautako edozein denpora txarragoa izan zanaren esperantzan bizi gara.

Jakin arren, aurrean daukaguna ez dala hobeia izango eta etorkizuneko min hori, aldean daroagun iraganeko minari gehituko jakola.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Goider 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Oñativia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakoa
T. 94 631 50 39
Kalegora Zabaldea 101
R.P.S. 21/06

ARRATIA, ZEBERIO

Pantailak ipiniko ditue futboleko Errege Kopako finala ikusteko

Erredakzioa

Apirilaren 6an, 22:00etan, Athletic-ek Mallorcaren kontra jokatuko dau Sevillan Errege Kopako finala. Hara joan ezin diran zaleek partidua ikusi ahal izateko, pantaila handiak ipiniko ditue Areatzako Gudarien plazan (eguraldi txarra egin ezkeru udaletxeko arkupetan), Igorreko Goiko frontoian (eguraldi txarra egin ezkeru kiroldegian), Lemoako kiroldegiko futbito kantxan eta Zeberion, Zubialden.

Badago hainbat zale partidua ikusten Sevillara joango danik be, eta horreentzako autobusa ipini dau Areatzako Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak. Joan-etorria autobusean egiteko izena emon dabenak, bezperan urtego dira Igorretik 22:00etan, eta partidua amaitu ostean bueltauko dira.

Egun osoko jaia Areatzan

Partidua dala-ta, egun osoko jaia prestatu dau Gorbeako Gu-

AREATZA
Errege Kopako finala
Apirilak 6, zapatua

11:00etatik 14:00etara, errealidade birtualeko betaurmekoakaz jokoak udalerriko areto nagusian.
11:00-14:00, partido on-joko de estadio en el estadio.

15:00etan, bazkaria. Oso onaketa, gero eta onaketa aretoak, amonak onaketa, bafatzena inguruen, beraketa eta peng-berantzetan eta bafatzena onaketa. Oso, eta gogortzen, onaketa bafatzen. Piztas 30k, bafatzen 20k, bafatzena onaketa bafatzen areto, gero onaketa eta bafatzena bafatzen. Oso, eta bafatzena Piztas 10k, bafatzen 10k.

18:00etan, kalejira Etxebarria eta-bera trikitaliakaz.
18:00, paseketa on-bera trikitaliakaz eta-bera.

22:00etan, Athletic Club-Mallorca finala pantaila handian, Gudarien Plazan.
22:00, final Athletic Club-Mallorca en pantalla grande.

Bakarriko izena apirilaren 4ra arte arto emon ahal da 601 529 748 (bera) telefonozan. El nombre para la compra se puede dar hasta el 4 de abril en el telefono 601 529 748 (bera).



rutzea Peñak Areatzan. Goizeko 10:00etan hasita, errealidade birtualeko betaurmekoakaz jokoak egongo dira goiz osoan udaletxeko areto nagusian; 15:00etan, alkarregaz bazkaldu plazan eta bazkalostean, 18:00etan, kalejira egongo da Etxebarria aita-bera trikitaliakaz.

IGORRE

Etorkizuneko Igorrerako proiektuak sortzeako saioak, apirilaren 10 eta 16an



Erredakzioa

Bizi Igorren 2030 proiektuak, herritarraz eta beste eragileakaz definitu ditu 2035erako Igorre bizigarri, jasangarri eta parte-hartzaile bat egiteko helburu bi: Igorre komunitate zaintzaile eta zaindua izatea eta lurrali konprometiduta egotea, hain zuzen be. Helburu horreek beteteko, hurrengo hamar urteetako proiektuak sortu behar dira oin. Hori dala-ta, apirilaren 10erako eta 16rako, arrastiko 17:30etik 19:15era, edade guztietako herritarrentzako saioak prestatu dabez

Kultur Etxean. Martxan dagozan proiektuak eta beste plan batzuetan, Lagunkoitzasun Plana eta Berdintasun Planean, esate baterako, jasota dagozan proiektu eta ekintza ideak be azalduko dira saiootan.

Bizi Igorren 2030ek, "bizi doguzan segurantzaz bako egoeren aurrean, erronka konplejei modu bateratuan eta barrizalean" erantzun gura deutse; hau da, Igorreko etorkizuna, herritarrek eta eragileek alkarregaz definitutea. Lehenengo pausuak emonda dagoz; Igorre komunitate zaintzaile eta zaindua eta lurragaz

konprometidua izatea gura dabe igorretarrek. Izan be, 2035erako komunitate enpatikoa sortu gura dabe eta herritarren gehiengoa persona guztien bizitza duina lortzeako inplikauta egotea. Bertako konsumo eta mobikortasun jasangarria be indartu gura dabe, Naturearen zaintza eta gozamina ahalbidetuteko.

Sistema ikuspegia

Helburu edo misino honeen bidez, "erakunde, eragile edo herritarrek sortzen dituen ekintzek zelandaisteko loturea izatea ahalbidetzen da, gure egitekoan sistema ikuspegia txertatuz. Sistema, sarea da eta sareak egiteko modu desbardinak eskatzen ditu: ondokoa entzutera, gure egunerokotasunetik harago dagozan errealidadeak ezetutera eta ados-guneetara heltzera konbidetan gaitu. Eta egiteko modu honek, gobernantza eredu barriak planteau eta hausnartzera erooten gaitu" azaldu dau Eider Aldapek, Bizi Igorren 2030 proiektuko idazkaritza teknikoko kideak.

LEMOA

Apirilaren 18ra arte dago zabalik Auzolandegietan izena emoteko epea

Auzolandegien eskaintzan, Lemoatx mendiko lubakietan denporan iraungo daben zakuak ipintea dago. Programea 14 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta parte hartu gura dabenek, <https://labur.eus/26Kz3> estekan emon leikie izena.

Auzolandegiok garagarriaren 22tik abuztuaren 4ra arte izango dira.



Auzolandegiak Lemoatxen

Auzolandegien eskaintzaren artean, Lemoatxeko lubakiak musealizatzea dago. Ekimenak, 1937ko Gerra Zibileko Lemoako lubakiak eta memoria historikoa mantendutea dauka helburu. Lubakiak Lemoatx mendiaren gailurrean dagoz eta bertan Gerra Zibileko bataila garrantzitsua gertatu zan. Auzolandegiko gazteen lana, lubakietan, denporan iraungo daben zakuak ipintea izango da, igaz egin zan legez. Lanaren zuzendaritzez Aranzadi Zientzia Elkarte arduratzen da.

Parte hartzean daben gazteek goizetan lubakietan lan egingo dabe eta arrasti eta astegoienetan hainbat jarduera osagarri izango ditue: jarduera ludikoak, kulturalak eta kirolekoak, hain zuzen be.

Erredakzioa

Auzolandegiak Eusko Jaurlaritzek bultzatutako programak dira, eta leku askotako hainbat gazte boluntario batu, eta inguru-

menaren, alkartasunaren eta lan-kidetzaren arloan, komunitateari onura ekarriko deuten hainbat lan egiten ditue. 2024 urtekoa, Auzolandegien hamargarren edizioa izango da.

AREATZA

II. Gazteen Dantza Topaketaren aurkezpena egingo da Areatzan

Erredakzioa

Apirilaren 13an, 17:30ean, Euskal Herriko II. Gazteen Dantza Topaketaren aurkezpen ofiziala egingo da Areatzan.

Ekitaldian, aurreko edizioan parte hartu eben jantzariez gainera, Areatzako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta proiektua antolatuten dauan Euskal Dantzarien Biltzarrak hartuko dabe parte. Aurkezpenaren ostean, jantza plaza egongo da.

Helburua, besteak beste, jantzari gazteei topaleku bat eskaintzea da, eta barriro alkartzeko eta loturak sortzean jarraituteko aukerea emotea, Euskal Dantzarien Biltzarretik uste dabelako jantza taldeen belaunaldi erreleborik eza konponduteko funtsezkoa dala taldeko kide izatearen sentimentua handitutea.



ARRATIA

Gorbeia inguruko argazki lehiaketaren bigarren edizinoa martxan da



Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak eta Gorbeialdeko Kuadrillak Gorbeialdeko nire txoko kuttuna lehiaketaren bigarren edizinoa antolatu dabe. Bertan, Gorbeia Helmuga Turistikoaren argazkiak Instagramera igoteko konbitea egiten jakie herritarrei eta bisitariei.

Igaz, 105 lan aurkeztu ziran, eta lehen saria Aintzine Larreina Fernández de Lecetak jaso eban. Gainera, lehiaketan parte hartuko daben lanak, Mi rincón favorito lehiaketa nazionalen lehiatuko dira.

Parte hartzeako, telefono mobilor edo edozein gailuz argazki bat atera eta Instagram sare sozialera igon behar da lehiaketako hashtag-akaz (#MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi) eta, aurkezten diran argazki adina inprimaki bete behar dira online. Irudiaren deskribapenaren testua obraren parte izango da, eta epaimahaiak kontuan hartu daike lan irabazleak aukeratzeko. Lanak Gorbeialdeko helmugan egindakoak izan behar dira.

Abuztuaren 31ra arte igon daitezke argazkiak Instagramera. Tokiko sariak urri lehenengoaren 16an jakinarazoko dira, eta estaduko irabazleak 27an argitaratuko dira.

Sariak

Lehiaketeak sari bi izango ditu: lehenengoa, 200 eurokoa, eta bigarrena, 100ekoa. Lehenengo saria irabazten dauan lana promoziorako materialetan (postalak, pegatinak, posterrak) inprimidutako erabiliko da, eta lehiaketea irabazi dauan lana dala adierazoko da bertan.

Argazki irabazleak Mi rincón favorito proiektuaren estatu mailako sarietan parte hartuko dau. Honek dira estatu mailako sariak: 1. saria: 500 euro; 2. saria: 400 euro; 3. saria: 300 euro; 4. saria: 200 euro; 5. saria: 100 euro eta 10 akzesit-sari, 50 eurokoak.

ARTEA

Arteako Herriko Bentak Solastalgia Topaketak antolatuko ditu maiatzean

Solastalgia berbea, Glenn Albrecht filosofoak sortu eban lurraldeari eragindako kalteak sortzean dauan egoneza izentatzeko. Horren inguruan, topaketak antolatu ditu Arteako Herriko Bentak maiatzaren 4tik 26ra bitartean. Apirilaren 6an, 13:00etan, topaketon aurkezpen publikoa egingo da, eta *Arratiako begiradak*. Atzo eta gaur argazki erakusketarako deialdia zabalduko da.



Erredakzioa

Erakusketaren asmoa, Arratiako bizilagunen "parte-hartzerik intimo eta personalena batzea da. Asko dira paisaia honen eta bertako jentearen orografia marrazten daben begiradak eta kontaktuzunak. Helburua ez da iraganari dei egitea nostalgia ariketa baten soilik, etorkizuna zelangoa izan daiteken pentseta baino" dinoe antolatzaileek.

Aurkezpen egunean, prentsurrekoa eta argazki erakusketarako deialdiaren ostean, Gailu taldearen kontzertua egongo da. Hirukoteak, *Begiak, egiak ba ote?* diskoa atera eban 2021ean. Bere musikeak, baseriko mundua eta kaleko musika elektronikoa, rock, punk eta hip-hop estiloak buztartzen ditu.

Kontzertuaren ostean, herribazkari solidarioa egongo da Arratiako autopista elektrikoaren kontra. "Erresistentziaz, aliantzez eta larrialdiaz egiten dau berba etorkizunak honezkero. Eskualde honetan eregiten dabizen autopista elektrikoaren kontrako burrukea horren adibide dogu. Proiektu horrek munduan egoteko modu eta bizimodu batzuk kaltetzen ditu". Hori dala-ta, bailarako proiektu desarrollista guztien kontrako burrukan Makatzak talde

Apirilak /6
/Arteako Herriko Bentan/
13:00
PRENTSAURREKOA
"Kultura, kritika eta lurraldearen topaketen aurkezpena"
ARGAZKI ERAKUSKETARAKO
DEIALDI IREKIA
"Arratiako begiradak.
Atzo eta gaur"
14:00
KONTZERTUA

ekologistearen inplikazioa errekonozidu gura dau Arteako Herriko Bentako taldeak. Makatzak taldearen "lankidetzeta funtsezkoa da kultura, kritika eta lurraldeko Solastalgia Topaketa honeetan" dinoe. Bazkari solidarioarako izena alde aurretik emon behar da 94 602 88 55 telefonoan.

Topaketak maiatzean

Kultura, kritika eta lurraldearen inguruko Solastalgia Topaketak, maiatzeko astegoiaren izango dira. Maiatzaren 4an, zapatuan hasiko dira eta hileko hurrengo bariku, zapatu eta domeketan, gaiaren inguruko mahai-inguruak, dokumentalak, kontzertuak, liburu aurkezpenak, esku-hartze artistikoak eta solasaldiak egongo dira.

Solastalgiak "bere barruan hartzean gaituan lurraldeagaz pentsetako ahalegina izan gura dau, lurraldeagaz garalako eta identitateak bertan zuztartzeko doguzalako. Geografia kritikoak dinoan legez, espazioa ekoizpen sozial bat da, baina, gauzak gertatzen diran eukiontzia bat izatetik urrun, gure hartu-emon sozialaren osogaita be bada. Lurralde hori, memoriaren, instituzioen, gatazken, identitatearen alkargune lez irudikatuko dogu 2024ko maiatzean".

BEDIA

Bizikletan bidaia bat prestatzeko tailerra egongo da Bedian

Erredakzioa

Talde osotu ezker, apirilaren 13an, zapatuan, *Bizikletaz bidaia-tzen, bizipoza, bakea eta bideak gureak diralako* izeneko tailerra egongo da Bediaiko Errakaondo udal lokalean, Bea Azpirik gidatuta. Aldez aurretik izena emon behar da AUMeko webgunean, 94 631 17 17 edo 688 627 393 telefonoan edo udaletxeetan.

Ilgoran Arratiako Andren Jabe-kuntza eskolako programazioaren barruan, martiaren 16rako egoan programata tailer hau, baina antolaketa errazoiak ziralata, atzeratzea ebatzi zan.

Tailerraren helburua, andrak bizikletan bidaiatzera animetea da, batez be edadekoak. Partaideek euren gustu eta neurri diseinatu dabe egin gura daben bidaiaren ibilbidea. Hori dala-ta, sasoi betean ez dagozan

andrentzat, bizikletan justu-justu dakienentzat edota beste edozein errazoiengaitik bizikletan bidaiatzea inoz pentsau ez dabenentzat aproposa da tailer hau. "Bizikletan bidaiatzea askatasuna da, astiro bidaiatzeko modu konziente, paisajearen integratuta bakea eta bizipoza dakarrena" dino Azpirik.



LEMOA

Udalak Jubiladuen Etxeko tabernea lizitazinora atera dau

Erredakzioa

Pleguak eskuragarri dagoz Lemoako Udaleko webgunean. Apirilaren 8an 13:30era arte, aurkeztu daiteke dokumentazioa.

Lizitazioa hiru gutunazalek osotuten dabe. Baten, administrazio agiriak joango dira; beste baten, balio judizioen bidezko dokumentazioa; hau da, negozio planaren proposamena, instalazioak mantentzeko eta garbitzeko plana eta jardueraren kudeaketan ipini beharreko ingurumen neurriak. Hirugarren gutunazalean, eskaintza ekonomikoa eta Baldintza Teknikoen Pleguan erretiratuentzat zehaztutako prezioen gaineko %15eko gitxieneko deskontua hobetutea.

ZEBERIO

Udalak andrentzako autozaintza emozionaleko ikastaroa antolatu dau

Erredakzioa

Zeberioko Udalak antolatutako Andrentzako *Autozaintza emozionala* ikastaroak, estresa eta ansiedade saihesten erakutsi gura deute andraskoei. Ikastaroak, ordu biko, 18:00etatik 20:00etara, zortzi saio izango ditu, apirilaren 10ean hasita, eguaztenetan, bagilaren 5era arte: apirilaren 10, 17 eta 24an, maiatzaren 8, 15, 22 eta 29an eta bagilaren 5ean,

hain zuzen be, izango dira saiook, eskola zaharrea. Izena apirilaren 5a baino lehen emon behar da 94 648 10 79 telefonoan.



ARRATIA, UBIDE

Galdakao-Usansolo Ospitalera joateko erabili ahal izango dabe Bideon 65 urtetik gorakoek

Erredakzioa

Usansoloko ospitalera taxi parte-katuaren bidez joateko aukerea eukiko dabe 65 urtetik gorako Arratiako herrietan erroldatutakoek. Zerbitzu hau, edade honetako erabiltzaileak etxeko atetik eskualdeko herriguneetara eroaten dituan zerbitzuari gehituko jako. Prezioa 1,5 eurokoa izango da ibilbide bakotzeko.

Holan, gainera, ospitalera oin arte euren ibilgailuan joaten ziranak, eta Usansoloko futbol zelaiko aparkalekuan edo udalerrian bertan aparkatu behar ebanak gitxiago izango dirala uste dabe bideOn Arratian-ekoek eta aparkaleku arazoa be konponduko dala.

Proiektu pilotua

BideOn Arratian proiektua fase pilotuan dago. Arratiako herrietan erroldatuta dagozan unibersidadeko ikasleak, etxetik Bizkaiko Campusetako fakultadeetara edo hurren dagoan garraio publikora eroateko; eta 65 urtetik gorakoak herriguneetatik urrun dagozan etxeetatik herriguneetara edo Usansoloko ospitalera eroateko da.

Bizkaiko Foru Aldundiak 900.000 eurogaz finantzatu dau proiektuaren fase pilotua. Fase hori urtebetez luzatuko da, eta holan, Herri Txiki, Aukera Handi prozesu parte-hartzailearen bidez eskualdean identifikatutako erroka nagusienetakoa gauzatu da dala di-noe BideOn Arratian zerbitzukoek.



ARRATIA

Basoa defendatzaileen etxetik ibilbide gidatua antolatu dau Arratiako Berbalagun ekimenak

Erredakzioa

Apirilaren 11n, 18:00etan, Arratiako Berbalagunek, Arteako Bildosola auzoan dagoan Basoa defendatzaileen etxea eta proiektua ezetuteko ibilbide gidatua egiteko aukerea izango dabe. Topalekua, Bildosolako aparkalekua da. Aldez aurretik, 662 199 033 WhatsAppen emon behar da izena.

AEK-ko Berbalagun ekimenaren euskerazko mintzapraktikak debalde dira. Euskeraz egin gura dabenen artean taldeak egiten dira eta euren aukeratutako leku eta orduetan batzean dira berba egiteko. Gainera, alkarregaz, hainbat jarduerak egiten ditue: familia ekin-

tzak, txangoak, tailerrak, mintzodromoak, lehiaketak, berbaldiak, mendi urtekerak eta astegoiengasak, beste batzuen artean. Oingoan, partaideek, Basoako defendatzaile eta ekintzaileen arteko alkartasun komunitatea ezetuko dabe.



DIMA

Axlor koban topautako haginien analisisiek, oin dala 100.000 urte bizi ziran neandertalenak dirala adierazo dabe

2000tik 2008-ra Axlorren egin ziran indusketetan agertutako hiru haginien analisiaren artikulua publikatu dau Jesus Gonzalez-Urquijok, zezeilean, *Journal of Human Evolution* aldizkarian. Oin dala 100.000 urte bizi izandako 10 eta 12 urte bitarteko ume bi eta heldu gazte baten haginak dira, Iberiar peninsulako iparraldean topautako zaharrenak.



Erredakzioa

Historiaurreko Ikerketen Nazioarteko Institutuko zientzialarien analisiaren arabera, "persona helduaren ezaugarriek, Iberiar peninsulako neandertalen ezaugarri anatomiko berariazkoak erakusten ditue. Hortzeria samurra peninsulako endemismo baten adierazpena izan leiteke" Jesus Gonzalez-Urquijo zentroko zuzendariak adierazotako berbetan.

Esandako moduan, datazioak, oin dala 100.000 urtean kokatzen ditu haginok eta sapiensak oin dala 40.000 urte inguru agertu ziran; beraz, Axlorreko neandertal honeek, "neandertalen eta sapiensen arteko harremanen eta Asia zentralako neandertalen hedapenaren aurretik" bizi izan ziran, Goi Pleistozenoaren hasieran.

Axlorreko indusketak Jesus Emilio Gonzalez-Urquijok eta Juan José Ibañezek zuzendu ebezan 2000tik 2003ra, eta Urquijok, Ibañezek eta Joseba Riosek 2003tik 2008ra. Ehun mila urte dituan aurreko matrailagin hau oin dala 20 urte industu zan eta bertan egon zan Joseba Rios.

Axlor, neandertalen sekuentzia arkeologiko luzea

Barandiaranek 1932an Axlor topatu eta 1960ko hamarkadan indusketak egin hasi zantetik, neanderta-


len sasoi desbardinatutako hagin eta errastoak topatu dira aztarnategian. Neandertalen bizimodua jakiteko aztarnategi garrantzitsuenetakoa dala, sano sekuentzia arkeologiko luzea daukala eta neandertalen kultura desbardinak ikertu daitezke bertan, azaldu eutsan 2020an BEGITU emondako alkarrizketa baten Joseba Riosek, Espainiako Giza Eboluzioaren Zentroko ikerlariak. Joseba Riosek eta Asier Gomezek zuzendutako talde batek Jose Migel Barandiaranek topautako giza fosilak, barriro aztertu ebezan eta neandertalen hiru hagin eta buruhazur zati bat topatu ebezan. Neandertaltzat jotzen ziran beste hiru hagin barriz, sapiensena zira-la frogatu eben. "Hagin bi horreek (neandertalenak) eta kaskezur zatia, maila bardinetik datoz, beraz neandertal errastu zaharrena Barandiaranek berak topatu eban Axlorren 1967an!" dino Riosek.

Neandertalak, Europan aurretik egoan populazino batetik sortu ziran. Populazino hori Atapuercan Hazurren Leizean (Sima de los Huesos) agertzen da. Horrek, gitxi gorabehera, oin dala 200.000 urtetik 220.000 urte arte iraun eban, aurreneandertalak ziran eta apurka-apurka eboluzioetan joan ziran. Neandertalak gitxi gorabehera oin dala 200.000 urtetik aurrera dagoz, erdi paleolitoan. Erdi paleolito zaharra eta erdi paleolito barria desbardinatzen dira. Zaharra, oin dala 100.000 urtera ailegetan da,

eta barria, oin dala 45.000 urtera.

Neandertalak Arratian

Neandertalen gainean berba egiten dogunean, 160.000 urteri buruz gabiz berba egiten. Giro ekologiko oso desbardinatutako bizi izan ziran populazino honeek, Arratiako bailaran. "Adibidez, oin dala 115.000 urte hasi zan glaziazioarteko sasoi bat. Lehen egoana glaziazioarteko sasoi horretan tenperatura eta klima piloa aldatu ziran. Tenperaturak oso altuak ziran, gaur egungoak baino 5 gradu altuagoak, Euskadi tropikala. Eta agertu ziran makakoak, hamsterrak, eta gaur egun ez dagozan eta epoka glaziarretan be egon ez diran zenbait animalia eta landare" azaldu eban orduan Riosek.



Adela Mesa: "Inposatzen jabilku izapide guztiak formatu elektronikoan egitea"

Banku-bulegoak zarratutearen kausa eta ondorioa da, ez bakarrik diru fisikoa gero eta gitxiago erabiltea, baita izapide guztiak modu elektronikoan norberak egin beharra be. Hortik, mozkin ederra ateraten dabe bankuek, gaur egungo urrea diran datuak lortuz.

Ander Zarraga/Erredakzioa

Eta datu horreek, bankuen eskuetan, portaera indibidual eta kolektiboa moldatzeari ateak zabalduten deusie, bijilantziaren kapitalismoari, hain zuzen.

Izan be, banku bulegoak zarratutea, kutxazain-puntuak gitxitzea, datafonoen zabalkundea eta izapideak aplikazioen bidez egin behar izatea, ez da bakarrik erosotasun kontu bat, gure pribadutasuna erabat galtzeako buelta bako bide honetan zein puntutan gagozan adierazlea be bada-ta. Hiruka Komunikazio Taldeko Ander Zarragak, Pedro Manuel Martinez Monje Soziologia eta Gizarte Langintzako irakaslea eta Adela Mesa Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea alkarriketatu ditu honen inguruan.

Enpresen eta personen arteko hartu-emonak aldatzen dabiz, gero eta gehiago Internet bidez emoten dira, zelan eragiten deutse horrek erabiltzaileei?

Manuel Martinez: Arazoa da hartu-emon horreek ez dirala modu orekatu baten emoten, merkadu-sistema batez gabizalako berbaz eta horrek hainbat desoreka sortzean ditualako. Puntu honetan sortzean dan arrakala digitalean alderdi bi bereiztu daitezkeala uste dot: batetik, kudeaketa horreek egiteko beharrezkoak diran gailuak eta baliabideak eukitearen kontua dago, danek ez daukielako Internet edo behar dan moduko gailurik etxean, eta bestetik, horreek erabilteko gaitasuna dago. Edadeko personak dira puntu honetan zaugarrienak, askok trebetasun kognitiboa galdu dabelako edo ez dakielako tresna digital horreek erabilten. Horrenbestez, sistema horretatik kanpo geratzen dira, egoera zaugarrian sartuz.

Adela Mesa: Herritar digitalen estatus barria sortu dogu, baina mundu guztia ez da hor sartzean, batzuk guztiz digitalizauta dagozalako, baina beste batzuk ez, ez dakielako edo baliabiderik ez daukielako. Kontu horrek eztanda egin eban Carlos San Juanegaz. Berak zera esaten eban: "Ni na-



Adela Mesa eta Manuel Martinez.

Argazkia: Hodei Torres.

gusia naz, baina ez naz ergela". Gizon horrek parkinsona dauka eta ezin ditu gailu edo kutxazainak bere kabuz erabili, eta bere burrukeak mugari bat ezarri eban 2022an edadekoen eta banku zerbitzuen digitalizazioaren auzian. Bera hainbat komunikabidetan atera zan, eta 600.000 sinadura eskuratu ebazan aitatu-tako bankuen funtzionamentua aldatu arazoteko. Horri esker, Gobernuak behartu ebazan bankuak protokolo bat ezartzera persona nagusiei beren-beregi zuzendutako arreta emoteko. Horrek ezartzen eban lehentasunezko arreta emon behar eutseela horreei: izapideak egiteko erraztasunak emonaz, ordutegia luzatuz, telefono-arreta eskainiz... Ni harrিতa geratu nintzan, bete-behar horreen artean egoalako leihatilatik eskudirua aterategaitik komisinerik ezin eutseela kobrau. Ha-ta guzti be, urtebete beranduago, San Juanek berak esan eban neurriak ez zirala hain eraginkorrak, neurri handi baten, boluntarioak diralako, beraz, berak eskatu eban horreek legez bete arazotea.

Zelan eragiten deusku honek guztiak gainontzeko erabiltzaileoi?

M.M.: Herritarrok gure gaurkotasunean erabili behar doguzan zerbitzuen eta prozesuen automatizazioak eta digitalizazioak estrategia bateri erantzuten deusala esango neuke. Susana Zuboff idazleak *Zainketaren kapitalismoa* izeneko liburuan digitalizaziorantz jotzen daben enpresen jokabidea kritiketan dau. Bere ustez, neurri handi baten, joera horren helburua da erabiltzaileak monitorizetea: gure ekintza eta portaera guztiak datuak bilakatzen dira euren eskuetan, eta horren helburu nagusia da gure portarea iragartea, horren arabera produktuak eskaintzeko eta mozkin gehiago atera ahal izateko. Zuboffen arabera, giza portarea erabat kapitalizauta dago, eta pribadutasunari uko egiten deusagu erosotasunagaitik, baina horri esker gure portaera indibidual eta kolektiboa moldatzeari ateak zabaltzen deusaguz. Banketxeek nondik ateraten dabe mozkin gehiago digitalizazioaren eraginez? Pentsau daikegu langile eta egitureari lotutako gastu gitxiago izango dituelako egiten dabela, baina benetako kakoa da guk emoten deutsegun informazioa, esate baterako, geolokalizazioa, zer erosten

dogun, non, zelan eta gure kontaktuen inguruko informazio guztia. Horri prosumitzaile deitzen jako, konsumitzaileak eta informazioaren produktoreak garalako aldi berean.

Uste dozue jokabide hau pandemiaren eraginez areagotu egin zala?

A.M.: Honen inguruan irurketa positiboa eta negatiboa egingo neuke. Alde positiboan, esango neuke pandemiaren eraginez murgiltze teknologiko bat izan genduala gizartearen alor guztietan. Hori onuragarria izan da, adibidez, komunikatzerako orduan gauzak asko erraztu jakuzalako. Ostera, alde negatiboari jagokonez, hainbat zerbitzutan alde aurreko hitzordua eskatu beharra edo izapide ia guztiak modu elektronikoan egin behar izatea aitatu neuke. Kontu horreetan legez agintzen dau kanal-ugaritasuna bermatuta egon beharko litzatekela, hau da, eskubidea daukagula izapideak telefonoz edo bulegoan zuzenean egitera, baina bultzatzen eta ia inposatzen jabilku izapide guztiak formatu elektronikoan egitea.

M.M.: Pandemiaren eraginez, biztanleriaren hainbat sektore konturatu ziran teknologiek bes-

telako erabilera bat eukiela, aisialdiaz harago. Horrek biztanleriaren parte garrantzitsu bateri kalte be egin eutsan, adibidez, ijitoen ordezkartzeak ohartarazo ebanez, etnia horretako eskolatutako umeakaz arazoak izan ebazan, ez eukielako hezkuntza zerbitzuetara sartu ahal izateko gailu edo baliabiderik. Arrakala hori gizartearen beste hainbat sektore eta esparrura be estrapolau daiteke, bankuenera be bai.

Uste dozue gehiago arautu beharko litzateken gai bat dala?

M.M.: Nik hau eskubideen arazo bat lez ikusten dot. Benetako ondoizatearen gizarte baten biziko bagina, eskubide eta bete-behar guztiak orekatu egongo balira, honek eskubideen galerea suposatuko leuke. Adibidez, lehen, bulegoan egiten zan transferentzia bat; oin, zuk egin behar dozu zure mobikorretik, eta hori txarto egiten badozu, ardura guztia zeurea da; zeozer txarto egiten badozu, bankuak zuri botako deusua errua. Ni ez naz bankuko langilea, baina holango aplikazioen bitartez danok bilakatzen gara bankari, benetan zertan gabizen jakin barik.

Uste dozue gobernuak eta erakunde publikoek gehiago egin beharko leukiela herritarren eskubideak babesteko?

A.M.: Administrazio publikoek euren digitalizaziorako enpresa pribaduetara jotzen dabe, horrenbestez, enpresa horreek inposatzen ditue euren erispideak. Horregaz batera, guk beti kritikau izan dogu erakunde publikoak ez dirala gehiago inpliketan herritarren digitalizazioan; beti itxi izan dabe arlo hori hirugarren sektoreko erakundeen eskuetan. Egin ditue ekimenak eta hartu ditue neurri batzuk, baina ez deusie guztiz zenezari adarretatik heldu, eta denporearen menpe itxi daben kontu bat da, datozan belaunaldiak guztiz digitalizauta datozalako. Horrez gainera, teknologian be ipinten dabe itxaropena, pentsetan dabelako etorkizunean adimen artifizialak eta aurreratutako gailuek eragingo dabela gu hain digitalizauta egon behar ez izatea, baizik eta teknologiek konponduko dituela daukaguzan arazoak.

KASTILLO PARKE EOLIKOA

Aerosorgailuak egongo diran parajeetatik ibilbidea egin eben Ubiden

Zeintzuk diran galduko diran paisajeak, pagadiak... eta irudikatzen 121 metroko aerogeneradoreek egingo daben inpaktua, Aire Hemendik! Ubideko Herri Plataformeak Castillo parke eolikoa pasauko dan lekuetatik ibilbidea antolatu eban martiaren 24an, kalte horreek ezetuten emoteko asmoz.

Erredakzioa

Torrea ipiniko dan lekura joan ziran lehenengotik ibiltariak. 85 x 25 metroko plataforma baten gainean egongo da torrea eta herritik be ikusiko da. Hortik urtengo da lehenengo aerosorgailurantzako bidea 4 metro zabalera izango dauana. Handik aurrera, eta Olleriasera heldu arte, 5 metroko zabalera izango dau bideak.

Ibilbidea, bost aerogeneradoreak egongo diran lekuetatik pasau zan, galduko diran pagadietatik, hain zuzen be. Leku ho-

reetara heltzeako, zuzatzen kentzeaz gainera, lur asko mobidu behar izango dira tonelaje handiko kamioiak pasetako. Lurak mobiduteak akuiferoetan be eragina izango dauala azaldu eben Aire Hemendik plataformakoek. Lur, ur, baso galtze eta paisaje horreen aldaketek, eragina izango dabe animaliangen. Gainera, hegazti-pasea dago mendi honetatik, iparretik hegoalderako eta alderantzizko migrazioetan. Aerosorgailuen palek hegaztien hilkortasun handia eragitea aurreikusten da.



Aerosorgailu bat pago honen ondoan ipini gura dabe.



Pagadi hau desgartuko da.



Hemen joango da beste aerosorgailu bat.



Torrea eregiko dan lekua.



Martiaren 24ko ibilbidea egin ebenak.



23. KORRIKA

Aurtengoa Korrikarik jentetsuena izan da

Kaleetan jentetsuena eta etxetik gehien jarraitu dan edizinoa izan da 23. hau. AEK-k emondako datuen arabera, 23. Korrikan 2.800 lekuko aldaketa, 4.900 eroale eta 11 egun zein 10 gau behar izan dira lekukoa Irundik Baionara eroateko. "Parte-hartze masibo hori herri gisa egin dogu, danok batuta. Genero, kolore eta sensibilidade politiko ugari hurreratu dira Korrikara" dinoe antolatzaileek.

Gurean be, jentetzea batu zan Korrikara martiaren 22an. Egun argiz eta eguraldi onak lagunduta, edade eta sensibilidade ugaritako jentek hartu dau parte, Zeberio eta Arratitik egindako ia 60 kilometroetan. BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartearen kilometroa, 2.122 kilometroa, Arteako Bildosolan, Dimako Asier Armendarizeri egokitu jakon zozketan. Lagunak eta familiagaz bertaratu zan, eta Maddi umeak eroan eban BEGITUREN lekukoa.

Orriotara dakarguz argazki batzuk. BEGITU.EUS webgunean dagoz argazki gehiago.



Goian Zeberioko ez hain gazteak eta behean Zeberioko Udaleko kilometroa.

Goian Zeberioko Austarri Kultur Elkartekoak eta Zazpatarrak taldeko kideak behean.

Onakiaun Harri Kostatxoan

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre





Arteako Udalak jubiladuei emondako kilometroa goian, Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peña, Lamino Kirol Kluba eta Areatzako Udala behean.

Suzien Mendi Kluba goian, Zeanuriko Txistulariak, Ekin Eraiketak eta Basoa Fundazioa.

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Behin dago jabetza *Behin dago proiektu*

- Solmentan zein dotairuan
- Lurrak (jakiteko, landat, basok...)
- Etxebizitzak (suak, baserriak, etxeak...)
- Garajeak
- Loceko komertzioak
- Publikoak
- Bolonak

- Eraldi berriak erakitzeko
- Eraldi berriak
- Aktibitate-proiektuak
- Lan diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Uharturik Agirre 25, 48143 - Igone
Agirretxe 14, 48151 - Igone
94 673 92 93 - 425 24 21 21
94 673 92 93 - 425 24 21 21
425 24 21 21
arratia@arratia.com

Kili-Kili
Ampa eta Puntukoak
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Mikela)
Tel: 94 472 43 81

olaetxe
OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak


Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



BEGITU aldizkaria kudeatzen dauan Zertu Kultur Elkartearen kilometroa.



Klara Astondo. Arratiako Korrikako ahotsa.



Lurdes Ortega. Arratiako Korrikako arduraduna.





Goian Arratiako Mugimendu Feministaren kilometroa, erdian Arratiako Bertso Eskolearena eta behean Arantzazuko Arginatx Mendi Elkartearena.



Goian Arratia Futbol Klubeko kilometroa eta behean Inazio Zubizarreta ikastetxearena.





Goian Kiñu Gaztetxearen kilometroa, Arratiako Egoitzakoena azpian, Zamakola alkartearena gero, Dimako Bertso Eskolea eta behean Keixako Hegoak Parapente Taldearena.

Goian Arantzarte Dantza Taldea, Igorreko Euskera Batzordea azpian, Lemoako Udala gero, Karabie Gaztetxea eta behean Bediako Korua.

Igorreko Udala goian, Luis Iruarrizaga Abesbatza, Ganzabal Mendi Taldea eta Durundi Barri Dantza Taldea.

MENDI LASTERKETEAK**Jon Betolazak eta June Villarroelek irabazi eben Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketa nagusia****Erredakzioa**

Martiaren 16an jokatu ziran Bedian VIII. Kolazinoko Mendi Eguneko 24 eta 16 kilometroko mendi lasterketak. 24 kilometrokoa, Jon Betolazak eta June Villarroelek irabazi

eben, eta 16 kilometrokoa Ion Artetxek eta Itsasne Urkiagak. Lasterketa luzeko lehenengo arratiarrak Unai Intxaurrea (02:24:36) eta Esti Garcia (03:38:20) izan ziran.

Kolazino Mendi Eguneko lasterketa nagusia, 24 kilometrokoa,

gizonezkoetan, Jon Betolaza izan zan arinena, ibilbidea 02:12:38ko denporan eginda. Podiuma Walther Becerrak (02:12:40) eta Hodei Samaniegok (02:12:48) osotu eben. Azken metrotara arte ibili ziran lehian hirurak eta sprintak ebatzi eban ordena.

Andrazkoetan, June Villarroelek irabazi eban lasterketa, ibilbidea 02:39:09 denporan eginda. Uxue Zorrillak (03:04:30) eta Ainhoa Celayak (03:05:35) osotu eben podiuma. Villarroelek lehen kilometroetatik itxi eban ebatzita karreara, lasterketa osoan tarte handia atera eutselako bere jarraitzaileei. Bigarrena eta hirugarrena barriz, minutu bateko aldeagaz, burrukan

ibili ziran lasterketa osoan.

16 kilometroko lasterketea

Hamasei kilometrokoa, Ion Artetxek eta Itsasne Urkiagak irabazi eben. Artetxek ez eban lehiakiderik izan: lehen kilometroan alde egin eban, eta 1:21:47 denporeagaz irabazi eban lasterketa. Mar-

kel Irigorrik (01:27:39) eta Harri Pasquierek (01:28:08) egin eben bigarren eta hirugarren, hurrengo hurrengo.

Andrazkoetan Itsasne Urkiaga izan zan garailea 1:46:55 denporeagaz, eta Begoña Uriartek (01:49:02) eta Zuriñe Frutosek (01:50:18) osotu eben podiuma.

**PELOTEA****Ezkerraldeak irabazi eban III. Mugarri Desafioko txapela****Erredakzioa**

Martiaren 17an, Otxandion jokatu zan III. Mugarri Desafioaren final handia, Ezkerraldea eta Arratiako taldeen artean. Hiru partidura jokatu zan desafioa eta Ezkerraldeak, binakako zein banakako partidurak irabazita lortu eban nagusitza. Holan, Bizkaiko lau eskualderen arteko txapelketako irabazlea izan da taldea.

Lehen norgehiagokoa, lau t'erdian aritu ziran Ruiz Ezkerraldekoa eta Urigoitia arratiarra eta etxekoa, joko arin bategaz urten zan garaile, 22-13. Binakako partidua izan zan bigarrena, Ezkerraldearen izenean jokatu eban Etxegibel-Lopez bikoteak eta Arratiaren izenean, Etxeita-Erkiaga; oingoan Ezkerraldeak irabazi eban 22-17. Holan, atzen partidurako geratu zan txapelduna nor izango ebaztea. Arratiaren partez Aurrekoetxea urten zan eta Ezkerraldearen partez, Kortazar. Hasikera gogor eta bardindu baten ostean, lemoaztarrak ezin izan eban Kortazar garaitu eta honen alde amaitu zan partidua, 22-16.

Finalurrekoak

Ezkerraldea martiaren 2an, Igozren jokaturako saioan sailkatu zan finalerako, Durangaldea taldeari hiru partidutik bi irabazita (22-0, 15-22 eta 22-16). Arratiarrak barriz, Ubiden martiaren 9an sailkatu ziran finalerako, Lea-Artibai taldea garaituta. Lau t'erdikoa ez ezik, binakakoan zein banakakoan izan ziran irabazle arratiar pelotariak (11-22, 22-8 eta 22-01).



hurreratu egingo zaitu, zatoz

urigunera hurbilduko zaitu




Bidaiatu urigunera taxian euro baten truke...



...funtsezko zerbitzuetara joateko:

Bankua

Udaletxea

Supermerkatua

Farmazia

Medikua

Egoitza

Galdakaoko Anbulatorioa

Galdakaoko Ospitalea

Lehendakari Agirre 11
48140 Igorre (Bizkaia)

94 471 46 24
www.bideonarratian.eus




MENDIA

Iraupen luzeko Zeberio Harana mendi martxea apirilaren 20an izango da

Austarri Mendi Klubak antolatuta, apirilaren 20an izango da Zeberio Harana mendi martxea. Ibilaldi luzeak 43 kilometro eta 2.400 metroko desnibela dauka; ertainak 25 kilometro eta 1.300 metroko desnibela eta laburrak 15 kilometro eta 600 metroko desnibela.

Erredakzioa

Martxea Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan dago eta ez dauka norgehiagoka izakerarik. Izena hilaren 15era arte emon daiteke www.zirkuitua.com webgunean.

Martxa luzea, 43 km, egin gura dabenak 07:00retan abiatuko dira Zubialdeko plazatik. Handik Piku Bikotxera (616 m) joango dira partaideak eta Garaigorta (662 m), Aibelabe (638 m), Arrugaeta (669 m), Untzueta (770 m), Artanda (550 m), Upo (573m), Tontorrandi (522 m), Mandoia (638 m) eta Argiñaoko Axttika (524 m) pasau ostean, barriro Zubialdeko plazan amaituko dabe martxa luzea. Ibilbide hori egiteko gehieneko iraupena 11 ordukoa da eta gitxienekoa 6 ordukoa.

Gehienez 7 ordu ditue martxa ertaina, 25 km, egin gura dabenek. Partaideak 09:00etan urten-go dira Zubialdetik eta, Zubialde (125 m), Mintegi (272 m), Upo (573 m), San Segismundo (407 m), Tontorrandi (522 m), Mandoia (638 m) eta Argiñaoko

Atxako (524 m) ibilbidea egingo dabe plazan amaitu aurretik.

Hamabost kilometroko martxaren ibilbidea barriz, Zubialde (125 m), Mandoia (638 m), Argiñaoko Atxa (524 m) eta Zubialde izango da. Partaideak 10:00etan urtengo dira eta 5 ordu ditue ibilbidea egiteko.

Jana eta edan guneak, Adaro, Kortatxi, Upo, Argiñao eta helmugan egongo dira. Zubialdeko frontoian dutxa hartu ahal izango da. "Kanpotik datozenentzat, eskola barrian lo egiteko lekua egongo da" azaldu deusie BEGITU Austarri Mendi Klubekoek.

Laugarren edizioa

Martxea urte birik behin egiten da eta aurtengoa laugarren edizioa da. "2016an hasi ginan eta 2020an, pandemia zala-ta, ez genduan egin. Lehenengo urteetan, martxa bakarra egin zan eta luzeagoa. Oin 43 kilometro izango dira baina hasikeran 48 edo 50 kilometro ziran" dinoe antolakuntzatik. Egunean zehar plazan, puzgarriak eta musikea egongo dira.



FUTBOLA

Atsedena gehientzat

Erredakzioa

Martiako hirugarren astegoienean jokaturako atzen jardunaldian puntuak lortu ebezan talde bakarrak Lemoako Harrobi eta gizonezkoen Arratia B izan ziran. Orduetik eta apirilaren bigarren astegoienera arte ez dago ligako partidurik Athletic-eko Kopako finala dala-ta. Andrazkoen Arratia A izango da hileko lehen astegoienean jokaturako dauan talde bakarra.

Lemoako Harrobi taldeak Arlo-nagusian jokatu eban martiaren 23an Urduliz B taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban. 26 jardunaldiren ostean 40 puntu ditu Lemoako taldeak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua derbia izango da apirileko bigarren astegoienean etxetik kanpo Amorebieta B liderraren kontra.

Arratia

Gizonezkoen Arratia A taldeak ezin izan eban aurreko asteko garaipena errepetidu atzen postuan dagoan lurretakoren kontra eta 0-1 galdu eban Urbietan martiaren 23an. Aukera ona galdu eban jatsiera postuetatik urruntzeko. 26 jardunaldiren ostean 26 puntu ditu Arratia Ak eta hamabosgarren postuan dago eta jatsiera postuak puntu bira ditu oin. Datorren partidua apirileko bigarren astegoienean jokaturako dau Igorren Galakao A taldearen kontra.

Gizonezkoen Arratia B taldeak be martiaren 23an jokatu eban etxetik kanpo Gemika B taldearen kontra eta 0-1 irabazi eban. 26 jardunaldiren ostean 32 puntu ditu Arratia Bk eta hamargarren postuan dago saikapenean. Datorren partidua apirileko bigarren astegoienean jokaturako dau etxetik kanpo La Mercet A taldearen kontra.

Andrazkoen Arratia A taldeak martiaren 23an jokatu eban etxetik kanpo Añorga taldearen kontra eta 4-3 galdu eban. 24 jardunaldiren ostean 40 puntu ditu Arratiak eta saikapeneko seigarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokaturako dau Valladolideko Parquesol taldearen kontra apirilaren 6an, arrastiko 15:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak egun berean jokatu eban Derio A taldearen kontra etxetik kanpo eta 1-0 galdu eban. Atzen hiru partidua jarraian galdu ditu Igorreko taldeak. 24 jardunaldiren ostean 39 puntu ditu Arratia Bk eta zazpigarren postuan dago saikapenean. Datorren partidua apirileko bigarren astegoienean jokaturako dau etxean Orduña taldearen kontra.

MENDIA

Mendi Film Festivaleko pelikulak Igorren

Urtero lez, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Bilboko Mendi Film Festival jaialdiko pelikula batzuk ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. Saio bi izango dira, biak 19:30ean; bata, apirilaren 11n, eguna eta bigarrena, hurrengo egunean, hilak 12.

Erredakzioa

Egunean, *Body of a Line*, *Everest Invaders* eta *Udalatx, ura eta atxa* filmak eskainiko ditue eta barikuan, *Oinez*, *The Silent Escape*, *La Gara* eta *Rope* egongo dira ikusgai.

Body of a Line, Henna Taylor estadubatuarraren 10 minutuko animaziozko dokumentala da. Bertan, Madaleine Sorkinek bidaia intimo eta sortzaile bateri ekin deutso, munduko bide gaxena 4.000 metrotik gora eskalatzeko: Dunn-Westbay Direct (8b+/c), Longs Peak (Neniisoteyou'u), Mendi Harritsuetan, Ipar Amerikan.

Metraje ertaineko film bat dator gero, 53 minutuko iraupena daukan Jean-Michel Jorda frantziarraren *Everest Invaders* filma, hain zuzen be. 2023an, Edmund Hillary eta Tensing Norgay lehenengoz Everestera igon ziraneko 70. urteurrena ospatu zan. Pelikuleagaz Reinhold Messner, 8.000 metro baino gehiagoko 14 gailurrak oxigeno artifizial barik igoten lehenak, ohartu arazo gura dau alpinismoa beste edozein konsumo produktu modukoa bihurtzen dabilela, eta Everest munduko zabortegirik altuena dala. Zabor inbasio hau gainera, Himalaiako zortzi milako guztietara zabaltzen doa.

Eguneko saioa amaitzeko, Eñaut Iturbe eta Iban Ayesareben 37 minutuko *Udalatx, ura eta atxa* dokumentala egongo da. Filma Udalatx babesteko deialdia da. Izan be, Udalatx (1.117 m) izaki bizidunen etxea izan da aspalditik. Harrezkero, harriek, mineralek, altzairuek eta burdinek Udalatx estali dabe, bai barrutik bai kanpotik eta mendeetan zehar, eskaintzen dituan baliabide ugariak ustiatu

dira eta Udalatx be agortzen dabil. Dana dala, Udalatx bizirik dago.

Barikuan lau film labur

Leire Egañaren *Oinez* 18 minutuko filmak zabalduko dau barikuko saioa. Bertan hurreko hiru txango erakusten ditu. Bakotxean, egia txiki bat erakusten dauan alkarrizketa bat. Izan be, mendia, pausuz pausu, egiak alkarrerri autortzea be bada; oinez ibiltea, ibilaldi lasaiera itzultzea, bidea partekatzea...

Oswald Rodrigo Pereiraren *The Silent Escape* 29 minutuko filma dator gero. Bartek Ziemskiren helburua Annapurna eta Dhaulagiri eskalatzeta eta eskiatzen jaistea da. Holan, Lurreko tontor altuenean bakardadean sortzean diran sensazio eta emozioetan murgilduko ditu ikusleak.

Italiako Alpeetan egiten dan mendi lasterketa gogorrenetakoak dakar Julen Elorzaren *La Gara* 15 minutuko dokumentalak. Lasterketa ikoniko baten historia da, eta Hillary Gerardi korrikalariaren bilaketa personala, amets baten atzetik, paisaia harrigarrietan: lasterketako andrazkoen marka barria ezartzea.

Amaitzeko, Moe Wada japoniar zuzendariaren *Rope* 29 minutuko filma dakar mendi pelikulen jaialdiaren bireak. Kazuya Hiraidek ibilbide ezin hobea topau eban oin dala 20 urte Tirich Mirreko iparraldean (7.708 m, Pakistan). 2022aren amaieran, Hiraide Kenro eta Nakajima 2016tik bere eskalada laguna konbidau eban Tirich Mir alkarregaz eskalatzera. Alpinista biek, ekiten deusie eskaladeari oxigeno artifizial barik. Inork ez dauanez bide hori lehenago eskalau, ez dakie zein arrisku mota izango daben. 6 egun eta 6 gau gogorren ostean, tontorra zapaltzea lortzean dabe.



FILMA

Artean izango da *Bizkarsoro* ikusteko hurrengo aukerea

Erredakzioa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herrietan, euretako batzuetan Korrika Kulturalaren barruan, dabil Josu Martinezen *Bizkarsoro* pelikulea herriz herri, bira egiten. Arratian, Areatzan, Diman, Igorren, Lemoan, Ubiden, Zeanurin eta Zeberion egon ostean, Artean egongo da ikusteko aukerea, apirilaren 12an, 19:00etan, Kultur Etxean.

"Frantzia sortu zan. Frantsesak sortzea falta zan bakarrik" azpituluagaz, filmak estatu frantsesaren ipar euskal herritarrek frantseztuteko ahaleginen eta herritarren euskereari eta euskal nortasunari eustekoaren burrukea kontetan dau. Iparraldeko fikziozko herri baten kokatuta, XX. mendean euskerea eta euskaldunak bizi izandako errepresinoa adierazoten dau filmak.



HEZKUNTZA

Eskola ala ankerkeria titulupean Hezkuntza aztergai izango dabe Arteako Herriko Bentan

Erredakzioa

Hezkuntzearen egoerearen gaineko hausnartzeko eztabaidak antolatu ditue apirilaren 13an, 11:00etatik aurrera, goiz eta arrastiz, Arteako Herriko Bentan.

Azken joerak Hezkuntzan, eskola turbokapitalismoaren garaian izenpean Carlos Fernandez Liria eta Teresa Maldonado Barahona Filosofia irakasleen berbaldiak entzuteko aukerea egongo da 11:00etan. Biak oso kritiko dira Hezkuntzearen egoereagaz eta gaiaren gaineko liburu eta artikulugari argitaratu diue. Maldonadok Berrian eta Argian egiten ditu kolaborazioak eta aspaldi honetan, Hezkuntzearen gaineko kezka handia adierazo dau artikuluetan. Arrastian, eztabaida zabala egongo da eta euskal irakasleek, Hezkuntza Sailagaz daukien burrukea azalduko dabe.



Bazkaria

Egun horretan Herriko Bentan bazkaldu gura izan ezker, alde aurretik egin behar da erreserba 94 602 88 55 telefonoan. Bazkaria eguerdiko 14:30ean izango da.

IRAKURKETE

Aprilean, irakurleek irakurleei gomendatuko deutseez liburuak Bediako Liburutegian



Erredakzioa

Bediako liburutegiak, apirilaren 8an, Ezin dozu galdu izeneko kanpaina ipiniko dau martxan, irakurleek irakurri eta gustau jakien liburu bat, beste irakurleei gomendatzeko. Irakurleen artean liburuaren gainean berba egitea, ideak partekatzea eta

irakurtearen esperientzia abarastea besteak beste, bilatzen dau kanpaina honek.

Kanpaineak irauten dauan bitartean, liburutegian mailegu bat egiten dauanean, fitxa bat emongo deusie irakurleari bete dagian. Bertan, liburuaren sinopsi laburra eta zergaitik "ezin dozun galdu" azalduko dau. Kanpaina

amaitu ostean, gomendatutako liburuakaz eta gomendio fitzakaz erakusketea egingo da.

Bediako liburutegiko erabiltzaileak, batez be, 5 eta 8 urte bitarteko umeak; 12 urtetik gorako gazteak bakarrik "derrigorezkoa, Institutuan agindutakoa" irakurten dabenak, eta 40 urtetik gorako andrak, batez be, eleberria irakurten dabenak dira. Irakurle horreek beste genero batzuk be ezetutea gura dabe liburuzainek. Badagoz irakurleak "eskola adinean derrigorrezko irakurketa bakarrik irakurten dabenak, baina akaso, lagun batek beste zeozer irakurten badau edo beste nonok liburu baten gainean eretxi bitxia partekatzen badau, jakin-mina edo irakurteko gogo biztu ahal jako. Bestalde, helduen artean batzuetan estilo literario baten sartzean gara, edo eleberrri mota baten. Beste irakurleen gomendioakaz, genero barriakaz probetako motibau daitezke" azaldu deusie BEGITURI Rakel Godoy eta Anabe Arruabarrena Bediako liburuzainek.

LEHIAKETE

Gazteentzako Memeka Lehiaketea antolatu dau Azkue Fundazioak

Azkue Fundazioak gazteentzako euskerazko meme lehiaketea antolatu dau.

Erredakzioa

Azkue Fundazioak eta lametza enpresek, Memeka, gazteentzako euskerazko meme lehiaketea antolatu dabe. 15 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu lekie parte, apirilaren 21era arte *memeka.eus* plataforman memeak sortu eta aurkeztuz.

Erabiltzaileek, *memeka.eus* plataforman irudi garbiak eskuratu daikiez eta testua txertatu memea sortzeako. Apirilaren 24tik maiatzaren 2ra bozkatu ahal izango dira memeak. Saridun bi egongo dira: webgunean bozka gehien lortzen dituan memea-



ren egileak 200 euro jasoko ditu eta Memeka-ko sare sozialetan atsegin gehien lortu dauzanak,

150 euro. Saritutako memeakaz serigrafiautako kamisetak be jasoko dabez irabazleek.

ERROMERIA

Gauargi taldeagaz erromeria egongo da Igorren hilaren 13an

Erredakzioa

Apirilaren 13an, 18:00etan, Kultur Etxeko plazan eguraldi ona bada eta kiroldegian txarra bada, jantzan ipiniko dau jentea Gauargi erromeria taldeak. Gauargi hamar urte baino gehiagoan dabil herrietako plazetan eta beste agertokietan zuzeneko kontzertuak emon eta jentea jantzan ipinten.

2012an sortu eben Amaia Txintxurretak eta Asier Castrok Gauargi erromeria taldea. Txintxurreta hamasei urteagaz hasi zan erromeria talde baten kantuan, eta harrezkeroztik hainbat musika taldetan eta telebista saiotan hartu dau parte. Goierna telebistako Kantari saioa aurkezlea be bada. Eta Asier Castro, musika irakaslea, gitarra-jolea, tekladu-jolea eta DJ ekoizlea be bada.



LIBURUA

Xavier Uriarte mediku naturistek liburua aurkeztuko dau Artean

Erredakzioa

Apirilaren 11n, 18:00etan, *De las infecciones, del contagio y de las vacunas* liburuaren aurkezpena egingo dau Xavier Uriartek Arteako Herriko Bentan, AskeBizi Arratien taldeak antolatuta.

Ez da Uriarteren lehenengo aldia izango Arratian. Izan be, igaz osasun neurologikoa eta txertoen gaineko tailerra gidatu eban Arantzazun.

Uriartek txertoen arriskuak eta elikadurearen garrantzia liburu askotan landu dauz. Izan be, bere lanen artean, *Peligros de las vacunas* (2003) edo *Alimento como medicamento* (2004) izenpeko liburuak dagoz eta txerto masiboen derrigortasunaren kontra eta erabakitze askatasunaren aldeko Liga para la libertad de vacunación alkarteko kidea da.



GAZTE EGUNA

Katilu, Hofe x 4:40 eta Drama Darama taldeek joko dabe Zeberioiko Gazte Egunean



Erredakzioa

Zeberioiko Gazte Elkartek antolatuta, apirilaren 13an, zapatuan, Gazte Eguna ospatuko dabe Zeberion. Bazkariak, Modorra taldearen musika akustikoak, baflepoteoak eta Katilu, Hofe x 4:40 eta Drama Darama taldeen kontzertuek osotuten dabe egitaraua.

Bazkarirako izena apirilaren 7ra arte emon daiteke dendan edo 688 817 309 telefono zenbakian. Eskola zaharrean izango da bazkaria 15:00etan. Bazkalostea Modorra taldeak girotuko dau. Baflepoteoa 19:30ean urtengo da eskola zaharretik, herritik ibilteko.

Kontzertuak plazako aterpean izango dira 22:30etik aurrera. Katilu Arrigorriagako taldearen blues-rock-ak zabalduko dau gaua; Iruñeko Hofe x 4:40ren underground arrakastatsuak jarraituko deutso gero eta Drama Daramak eskainiko dau azkenengo kontzertua.

DUNBA

Gure patioaren garbikuziaren garrantzia

Dimako Ugarana eskolako LH5. mailako ikasleak

Gu, Dimako Eskola LH5. mailako ikasleak gara. Oingo honetan, ingurumenaren zaintzearen garrantziaz idatzi gura dogu, eta gure asmoak zeintzuk diran igorri gura doguz Dunbako atal honetara.

Ikasturte guztietan Habitat Eguna (urri bigarreneko lehenengo astelehenean izaten da) ospatzen dogu eta normalean, fruta desbardinak ekarten doguz, holan hainbat fruta desbardin probetako aukerea izaten dogu.

Aurten, Habitat Egunean, aldaketa bat egin dogu, eskolako patioa oso zikin egoala konturatu ginan eta guztion artean, alkarlanean patioa garbitu genduan. Gela des-

bardinetako ikasleak alkatu ginan eta gure ingurumena txukuntzen ahalegindu ginan.

Guretzako EA2030 oso garrantzitsua da eta Lur planeta zaintzeako gure eskuetan dagozan ekintza guztiak egiten doguz: ura kontrolau, etxera goazenean giletako pantailak itzaltzen doguz, ordenagailuak ez doguz biztuta ixten, hondakinak botateko ontzi desbardinak daukaguz, paperaren erabilera kontrolatzen dogu...

Gure eskola guretzako gune oso berezia da eta gustura eta eroso sentidu behar gara, horretarako gure kezka herriari zabaldu gura deusagu.

Patioa ez da gurea bakarrik herritar guztiona da eta danok zaindu behar dogu.



Eskolako gunetxo bat garbitutakoan bildutako zarama.

Erronka txikitxo hau aurrera aterateko hainbat personaren parte-hartzea eta laguntzea jaso dogu.

Tailer batzuk egin doguz egin beharreko lana antolatuteko, tailer honeetan gugaz Mari Jose (Ingurumeneko zinegotzia) eta Ander (Ingurumeneko teknikaria) egon dira, alkarrezar hainbat ekintza antolatu

doguz eta maiatzaren 10ean arrastiko 19:00etan Dimako ludotekan gazteei gure ikuspegiaren barri emongo deutsegu.

Aurkezpen txikitxo bat prestatu dogu, guk egindako lanagaz eskolako patioaren egoera azaldu gura deutsegu eta danon betebeharrak zeintzuk diran be azpimarratu gura

doguz. Gure herriko zaintza eta bertako gune guztien zaintzaren garrantzia esplika gura dogu. Inprimaki batzuk be sortu doguz, herrian ingurumenari buruzko konzientzia zein dan aztertze. Inprimaki honek ludotekan eta etxeetara be bananduko doguz.

Badakigu, alkarlanean eta danon laguntzeagaz gure herria askoz garbiago egongo dala, baina gure helburua lortzeako herriko partaidetza beharrezkoa da, guk gure sensazioen barri emongo dogu. Espero dogu, maiatzean egingo dogun aurkezpenaren ostean egoera hobierantz joatea, eta hurrengo baten gure patioa garbitzen dogunean askoz txukunago egon daitela.



AGENDEA

APRILAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Apirilaren 4ra arte, Peña Gorbeako Gurutzeta Athletic Clubek antolatutako Errege Kopako finala dala-ta apirilaren 6ko bazkarirako izen-emotea 691 529 748 (Iker) telefonoan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Apirilaren 21era arte, Memeka euskerazko meme lehiaketarako memeak aurkeztu daitezke memeka.eus plataforman. 200 eta 150 euroko sariak dagoz.

Abuztuaren 31ra arte, Gorbeiko Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketa. Argazkiak Instagramera igon #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizau da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Jaietako Kartel Lehiaketa. Lanak hilaren 14ra arte aurkeztu daitezke liburutegian.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

IGORRE

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Hilaren 15era arte, *Euskal Herria eta Hemingway* erakusketea Kultur Etxean.

Bagilean jokatu dan Urbihools Koparako izen-emotea zabalik. 16 urte baino gehiago euki behar dira eta taldea 7 lagunez osotua egon behar da gitxienez. 5 euro ordaindu behar dira personako. Izena emoteko mezu bat bialdu behar da Instagram-eko @urbihools kontura.

Hile osoan zehar, X. urteurreneko Kiñu Olinpiadak. 3-5 personako taldeak. Izena emon https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdH0IVh_CDFPu35J2DLCTgb5NmptgkwcwAC6dSpFPYmkIHf3ag/viewform?fbzx=4054078124687222397 estekan.

LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

UBIDE

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestro Trail mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik kronoak.com helbidetan.

ZEANURI

Batxilerr etia unibersidadeko ikasleentzat

goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 15era arte, Zeberio Harana Mendi Martxarako izen-emotea www.zirkuitua.com webgunean. Luzea: 48 km eta 2.400 metroko desnibela; ertaina: 24 km eta 1.300 metroko desnibela; laburra: 16 km eta 600 metroko desnibela.

Hilaren 5era arte, andrentzako *Autozaintza emozionala* tailerrera izen-emotea 94 648 10 79 telefonoan.

Hilaren 7ra arte, Gazte Eguneko bazkarian izena emoteko epea, dendan edo 688 817 309 telefono zenbakian. Prezioa 10 euro.

APRILAK 6
AREATZA

11:00etatik 14:00etara, errealidade birtualeko betaurrekoakaz jokoak udaletxeko areto nagusian; 15:00etan, bazkaria; 18:00etan, kalejireia Etxebarria aita-seme trikilitariakaz; 22:00etan, Athletic Club-Mallorca Errege Kopako finala pantaila handian Gudarien plazaan.

ARTEA

13:00etan, prensurrekoa: Kultura, kritika eta lurraldearen topaketen aurkezpena eta, *Arratiako begiradak. Atzo eta gaur* argazki erakusketarako deialdi irekia; 14:00etan, Gailu taldearen kontzertua; ostean herri-bazkari solidarioa Arratiako autopista elektrikoaren kontra. Izena 94 602 88 55 telefonoan emon.

IGORRE

22:00etan, Errege Kopako finaleko partidua pantaila handian Goiko plazako frontoian. Eguraldi txarra egin ezkerro, kiroldegiko frontoian.

LEMOA

22:00etan, Errege Kopako finaleko partidua pantaila handian kiroldegiko futbito kantuan.

ZEBERIO

22:00etan, Errege Kopako finaleko



Estankonak kontzertua eskainiko dau Areatzan

Borja Estankona musikari arteztarrak, kontzertua eskainiko dau apirilaren 13an, 20:00etan, Areatzako The Quiet Corner tabernan. Kontzertuan, Estankonak bere ibilbideko abestien bilduma bat abestuko dau bakarrean, gitarreagaz lagunduta.

Arean taldeko gitarra-jole moduan hasi bazan be, urte asko dira bakarrik ibilbidetari ekin eutsala eta hainbat disko ditu kalean bakarlarri moduan: *Estankona* (2011), *Fruitua* (2012), *Ardatza* (2015) eta *Zuzenean* (2019).

partidua pantaila handian Zubialden.

APRILAK 7
IGORRE

17:00etan, zinea, *Un rey super mono*; 19:30ean, *Dune: Parte dos* Lasarte Aretoan.

APRILAK 8
ARTEA

Hilaren 17ra arte, I. Orri-markatzaile Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Ludotekan. Hiru kategoria: 4-10 urte bitartekoak; 11 eta 16 urte bitartekoak eta 17 urtetik gorakoak. Orri markatzailearen gaia "Liburuak" izango da. Neurria: 5 x 20 cm.

BEDIA

Hile osoan, Bediako liburutegian, mailegu bat egitean, fitxa bat emongo da irakurleak beteteko. Bertan, liburuen sinopsi laburra eta zergaitik ezin dozun galdu azalduko da. Kanpaineta amaitu ostean, txartelak eta liburuak erakusketa baten ipiniko dira.

16:30etik 19:30era, maiatzaren 11n egingo dan Arantzazuko Artzain Eskolara txangorako izen-emotea liburutegian hilaren 26ra arte.

APRILAK 9
AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Arte-drama laborategia* tailerraren saioa Gazteleguan.

APRILAK 10
IGORRE

17:30ean, Bizi Igorren 2030eko edade guztietako jentearentzako saioa Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:00etan, andrentzako *Autozaintza emozionala* tailerreko lehenengo saioa eskola zaharrean.

APRILAK 11
ARTEA

18:00etan, Berbalagun egitasmoak antolatuta, Basoa defendatzaileen etxean ibilbide gidatua.

18:00etan, Xavier Uriarteren *De las infecciones, del contagio y de las vacunas* liburuaren aurkezpena eta solasaldia Herriko Bentan.

DIMA

18:30ean, zineforum intergenerazionala eskolako kamanan. Andra eta gizonen arteko bardintasuna.

IGORRE

19:00etan, Klown tailerra Kiñu Gaztetxean.

19:30ean, Mendi Film Festival Lasarte Aretoan. *Body of a Line*, *Everest Invaders* eta *Udalatx, ura eta atxa* filmak Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:00etan, Smartrekking ibilaldi esperimentala Gudarien parketik urtenda. Izena alde zuretik emon 674 945 426

telefonoan.

APRILAK 12
ARTEA

19:00etan, *Bizkarsoro* filma Kultur Etxean.

BEDIA

18:00etan, 16 eta 18 urte bitarteko gazte eta euren gurasoentzako *Zure etorkizuna aukeratz* berbaldea. Liburutegian.

IGORRE

19:30ean, Mendi Film Festival Lasarte Aretoan. *Oinez*, *The Silent Escape*, *La Gara* eta *Rope* filmak Lasarte Aretoan.

APRILAK 13
AREATZA

17:30ean, Euskal Herriko II. Gazteen Dantza Topaketaren aurkezpena plazaan. Ostean jantza plaza.

ARTEA

10:00etatik 12:00etara, *Aliantza antirrazistak ereiten* mahai-ingurua. Hizlariak: Carolina Agudelo, Abdoulaye Sarr, Lolita Chávez, Marie Lucie Monsheneke, Hassana Aalia, eta Fernanda Cândida; 12:00etan, hamaiketako; 12:30ean, Pilar Alba eta Iker Barberoren berbaldiak *Muga politikak eta legedia*; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, *Eskubide (gabeziaren) gauzatzea* tailerra Shandra Lourido eta Javier Canivellen eskutik eta Alaine Aranbururen *Bidasoa 2018-2023* dokumentalaren proiektzioa. Basoa



Joseba Sarrionandiak berbaldia egingo dau Dimako bonbardaketaren urteurrenaren inguruan

Ermiten kanpikadakaz eta Bakearen Lore Gara ekitaldi instituzionalagaz, Dimak, 2016tik urtero, 1937ko apirilaren 6an sufridutako bonbardeoa ekarten dau gogora. Aurten, apirilaren 6an, kanpikadak, ekitaldi instituzionala eta Joseba Sarrionandiaren *Egiten gaituen memoria* berbaldea antolatu ditu Txumuluxueta Kultur Elkartek.

1937ko haretan bonbardaketea gertatu zan ordu berean, 17:00etan, hasiko dira Dimako eleiza eta ermitetan kanpikak jotzen, 5 minutuz. Ekitaldi instituzionala 18:00etan hasiko da. Landaburun izango da eta Nagore Pastor biolin-joleak eta Zamakolako koruak ipiniko deustie musikea ekitaldiari. Atzenik, 18:30ean, holango krimenak ez ahaztuteko garrantziak egingo dau berba Joseba Sarrionandiaren Abaroa lokalean.



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeerea, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodierea. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure

barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontaktua: 672 873 452 (Nerea).

LANA

FRANTSESEKO KLASAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umeei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat beginu@beginu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

beginu

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera
Dune: Parte dos filmarako.

Juan Mari Beobide (Areatza)
Katalin Ayesta (Dima)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera
Dune: Pobres criaturas filmarako.

Ekhi Zabala (Basauri)
Simon Urigoitia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.beginu.eus | beginu@beginu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tel. 94 631 92 00

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tel. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel. 94-673-70-87
Tel. 609-79-49-54

beginu
eus

begitu

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuota: 40€ 60€ 80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

